

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

HEZKUNTZA SAILA

4988

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 4koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Irakaskuntzako Hizkuntza Eskakizunetarako Azterketen Ebaluazio Batzorde Bateragilea izendatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1994ko urtarrilaren 10eko Aginduaren 12. artikulua ezarritakoaren ildotik, hezkuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen Ebaluazio Batzorde Bateragilea izendatzea da Ebazpen honen xedea.

Horregatik, hizkuntza-eskakizunen azterketak garaiz eta zuzen antolatu ahal izateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Ebazpen honen bidez Irakaskuntzako Hizkuntza Eskakizunetarako Azterketen Ebaluazio Batzorde Bateragilea izendatzen da.

2. artikulua.– Batzorde Bateragilea honako kideok osatuko dute:

- Garazi Urrea Errasti andrea, lehendakaria.
- Gorka Zarate Gorostiola jauna, Bizkaiko azterketa-batzordearen burua.
- Maiteder Erkiaga Laka andrea, HAEE-IVAPen izenean.
- Josune Erauskin Olanga andrea, Arabako azterketa-batzordearen burua.
- Alex Aldekoa-Otalora Agirre jauna, idazkaria.
- Pello Aranburu Mujika jauna, Gipuzkoako azterketa-batzordearen burua.

3. artikulua.– Azterketa Batzorde Bateragilerako ordezkioak hauek dira: lurraldeetako azterketa-batzordeetan idazkari-lanak egiten dituzten aztertzaileak.

4. artikulua.– Batzorde Bateragilea da hizkuntza-eskakizunen azterketa guztien arduradun, Hezkuntza Sailak horretarako eman dituen arauzko erabakien ildotik. Era berean, lurraldeko batzordeburuei dagokie Azterketa Batzorde Bateragilearen xedapenak beren lurraldean ezartzea eta lurralde horretako azterketa-prozeduraz arduratzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, berau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 4a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.